



## INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA

2023ko martxoak 14

### GAI-ZERRENDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Abian den proiektua:
  - Getxo Bono 2023: kanpainari buruzko datuak
  - 2022ko kontrataziorako laguntzak
  - Kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia
  - Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera
  - <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina
  - Flysch Bizkaia proiektua
  - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak
  - Turismo-sektoreko berriak aholkularitza- eta prestakuntza-programak
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

### BERTARATUAK: (% 58)

DEITUTAKOAK		BERTARATU TAKOAK	ETORRI EZ IZANA	
			Arrazoia emanda	Arrazoirik eman gabe
Smartin Bilbao	Saioa Martin			X
Wilextours	Pablo Perez		X	
Go Basquing	Iñigo García-Valenzuela	X		
Geotxiki	Joseba Betanzos (Aintzane Goffard-en izenean)	X		
Ekobideak	Imanol López		X	
Ekobideak	Bárbara Casas	X		
Iparraldea – turismoko ordezkariak	Josu Abeytua	X		
El Transbordador de Vizcaya	Ainhoa Sarriegi	X		



Getxo Tours	Unai Celaá	X		
MICE Design	Virginia Pérez		X	
Cristina Laiseca ordezkaria	Cristina Laiseca		X	
Bilbao Food Safari	Oihana Oribe	X		
Punta Begoña Galeriak Fundazioa	María Peraita		X	
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Aitor Zorrilla	X		

## EDUKIAK

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, bilerara gerturatutakoei ongietorria egin die. Jarraian, talde-eztabaida txiki bati ekin zaio udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko.

### 2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

#### a) Getxo Bono 2023

Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, kanpainari atxikitako establezimendu kopuruaren berri eman du: 278, eta jakinarazi du, ostalaritza mahaiak eskatuta, ostalaritzako sektoreak ez duela parte hartuko Getxo Bono 2023 kanpainan. Era berean, joan den urtearekin alderatuta egin diren aldaketak zerrendatu ditu:

- Bonu gutxiago pertsonako, 6 guztira: 5 €-ko 3 deskontu-bonu eta 10 €-ko 3.
- Establezimendu bakoitzean trukatzeko bonuen gehieneko muga. 1510 €-ko hobaria establezimendu bakoitzeko.

Bestalde, Mirene Zabalgogezcoak ekonomia sustapeneko arlotik egindako aholkularitza-lana balioetsi du. Izan ere, osatu gabeko faktura sinplifikatuak egiten zituzten establezimenduak bisitatu dituzte, eta enpresa aholkulariak bisita egin ondoren, fakturen nahitaezko eremuak zuzentzea eta faktura sinplifikatu zuzenak egitea lortu dute. [GetxoBonori buruzko informazio gehiago](#)

#### b) 2022ko kontrataziorako laguntzak

14 laguntza eman dira. [Informazio gehiago](#).

Ez dakigu noiz aterako den 2023ko deialdia.

#### c) Kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia

Oraingoz, ez da Bilbao Bizkaia Action Groupeko mahaiak proposatutako ekintza berririk izan. Berritasunak daudenean, ohiko bitartekoen bidez jakinaraziko da.



## d) Getxo: helmuga turistiko adimendunerantz aurrera

Helmuga turistiko adimenduna (HTA) programak helmugan lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantzaren, berrikuntzaren, teknologiaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren bitartez. Helmugak ziurtatzeko, 97 betekizun eta 261 adierazle dituen metodologia bat erabiltzen da. Horren bidez, helmugaren heldutasun-maila baloratzen da, eta ekintza-plan bat du ondorio. Getxon abian jarri den metodologia praktikoan, udal arlo guztiek osatutako diziplina anitzeko lan-mahaiak osatu dira, bost alderdi lantzeko: gobernantza, berrikuntza, teknologia, jasangarritasuna eta irisgarritasuna.

## e) <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina

Mirene Zabalgogezkoak esan du planak argitaratuta daudela: [Getxo - Zer egin - Zer egin](#). Gainera, jakinarazi du Getxo FITUREn egon zela plan horiekin eta Flyscharen proiektuarekin.

Go Basquingeko Iñigo García-Valenzuelak informazioa eskatu du <Getxoz gozatzeko planak 2022> kanpaina sustatu ziren jarduerak izan zuten eraginari buruz.

## f) Flysch Bizkaia proiektua

Aditzera eman da Flyscharen webgunea martxan dagoela eta FITUREn aurkeztu zela: [Flysch Bizkaia](#)

## g) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

Ezarritako ibilbide berriei buruzko informazioa ematen da: Fidel Iturria, Horacio Echevarrieta eta Antonio Basagoiti.

Josu Abeytua interpretazio-zentro, gidari eta bidaia-agentzien mahaiko ordezkariak antzeman duenez, Aixerrotoako seinaleetako QR kodea irakurtzean, Areetako ibilbide bat erakusten du. Turismo Arloari helarazi zaio, egiazta dezaten.

Ikus gehiago: [Deapie - Ibilbide autogidatuak](#)

## h) Turismo-sektoreko berariazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak

Bilbao Food Safaryko Oihana Oribek esan du Getxolanen komunikazioak jasotzeari utzi diola. Hurrengo komunikazioetarako, haren helbide elektronikoa egiaztatu eta datu-basean sartuko da. Horrez gain, Oihanak berak adimen artifizialari buruzko prestakuntza eskatu du, webguneetan testuak sortzeko.

Go Basquing-eko Iñigo García-Valenzuelak kontsulta egin du sektoreko webguneen posizionamendua hobetzeko aholkularitza jasotzeko Aholkularitza Foruak lehenetsi zuen ekintzari buruz. Adierazi dute oraindik ez dutela horri buruzko informaziorik jaso.

Unai Celaák [Visit Biscay | Bilbao Bizkaia - Turismo](#) webgunearen berri eman du, baina zalantzak sortu dira webgunearen funtzionamenduari buruz eta, batez ere, webgunearen bidez zerbitzuak erosteko aukerari buruz. Iñigo García-Valenzuelak 2022an bisitari kopurua handitzea eskatu du.



### 3. Ideia eta proposamen berriak.

Mirene Zabalgogezkoak adierazi du laster barne-bilera bat izango dela Frantziako Tourraren harrera dela eta. Informazio gehiago dutenean, sektoreari jakinaraziko zaio. Udalerriko ostalaritza dinamizatzeko egin asmo den ekintza-planaren berri ere eman du, eta Oihana Oribek horretan parte hartzeko eskatu du.

Iñigo García-Valenzuelak errotako inbertitzaile berriari buruz galdetu du, eta ea posible den udalerriko enpresa-jarduerarekin lotzea, baita jarduera gurutzatuen preskriptore izan daitekeen ere. Horren harira, Arriluce hotelaren irekiera berriaren egoerari buruzko zalantza ere sortu da bertaratuen artean. Era berean, Oihana Oribek turismo-bizitokien eta -etxebizitzaren zerrenda eskatu du, horietara jo ahal izateko bere zerbitzuak eskaintze aldera.

Oihana Oribek Getxoko esperientzia paketeak egitea proposatu du tokiko enprekin, eta horiek turismo webgunean sustatzea. Proposamena turismo arloari helaraziko zaio, egin ahal den kontsultatzeko.

El Transbordador de Vizcayako Ainhoa Sarriegik urtean zehar udalerrian izango diren kultur ekitaldien egutegia eskatu du. Baita udalerrira iristen diren gurutzaontziena ere.

Gainera, jakinarazi du uztailaren 28tik 29ra hainbat jarduera egingo direla Bizkaia zubiaren inguruan, 130. urteurrena dela eta. Bestalde, zubiaren ondoko turismo-bulegoa noiz irekiko den galdetu du.

Mirene Zabalgogezkoak jakinarazi du taxien ordenantza berria onartu dela, taxietan publizitatea egiteko aukera barne hartzen duena (bertaratuentzako aukera izan daiteke). BAO, 50. zk., 2023ko martxoaren 13koa. Taxien sektoreak publizitate-proiektua prest duenean, informazioa gainerako sektoreei helaraziko zaie.

Unai Celaák *Bilbon* aldizkariaren berri eman die bertaratutakoei. Bertan, eduki turistikoa duten publie-reportajeak egiten dira udalerriei buruz. Hala, aldizkariari buruz gehiago jakiteko jakin-mina duten bertaratuei dei egin die berarekin harremanetan jar daitezen, informazio gehiago emate aldera.

Amaitzeko, Josu Abeytuak INGURU apparen garapenari buruzko informazioa eman du. Besteak beste, honako hauek eskaintzen ditu: agenda kulturala, esperientziak, interesguneak, eta abar. Geolokalizazioa du, eta horrela, erabiltzaileari bere kokagunetik hurbilen dauden jarduerak eskaintzen dizkio, 9 hizkuntzatan guztira. Informazioa ematen jarraituko dute.

### 4. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea apirilaren 27an. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.



## INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA (2023/03/13)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. <Getxoz gozatzeko planak 2022> memoriari, gualdiei, eta itsaso eta irristatzearen sektorearen bilakaerari buruzko informazioa ematea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Turismo arloari jakinaraztea. DEAPIE ibilbideen lotura berrikustea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Datu-baseak: 1.- Bilbao Food Safaryko Oihanaren helbide elektronikoa egiaztatzea eta datu-basean sartzea, Getxolanen komunikazioak jaso ditzan. 2.- Amaluz Ocean Villa (establezimendu berria) gehitzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Testuak inplementatzeko adimen artifizialari buruzko prestakuntzarekiko interesa helaraztea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. Web posizionamendua hobetzeko ekintza abian jartzea (aholkularitza)	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
7. <a href="#">Visit Biscay   Bilbao Bizkaia - Turismo</a> eta <a href="#">Erreserbatu Bilbao Bizkaia</a> webguneen funtzionamendua kontsultatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
8. Hauei buruzko informazioa bidaltzea: 1. Gurutzaontzien egutegia 2. Udalerriko kultur eta kirol agenda. 3. Arriluce hotela 4. Frantziako Tourra 5. TicketBALri buruzko informazio-saiiak 6. Zubiaren ondoko turismo-bulegoaren irekiera	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
9. Turismo arloari Getxoko esperientzien pakete mistoak eskain daitezkeen kontsultatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
10. Taxietako publizitatearekin lotutako informazio interesgarria helaraztea	Zerbitzuko teknikak (taxiak)	Taxien sektoreak publizitate-proiektua prest duenean